

2019

IKASTAROA



**Substantziarik gabeko
mendekotasunen prebentzioa:
On- line jokoak eta kirol apustuak**



**GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD**

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

IKASTAROA:

Substantziarik gabeko mendekotasunen prebentzioa: On- line jokoak eta kirol apustuak

Bilbao

Datak: 2019ko urtarrilak 22a, 29a eta otsailak 5a

Non: Gazteen Euskal Behatokia. Uriortu kalea 11, behea

Hizkuntza: gaztelania

Donostia

Datak: 2019ko urtarrilak 23a, 30a eta otsailak 6a

Non: CRAJ, Anoeta, 28

Hizkuntza: euskara

Ordutegia:

10:00etatik 14:00etara

Izena emateko epea:


Bi ikastaroetarako 2018ko abenduaren 10etik 20ra eta lekurik geratzen bada, berriro zabalduko da 2019ko urtarrilaren 7tik 10era

Leku-kopurua:

15 pertsona gutxienez, eta 25 gehienez

Izena emateko:


www.gaztebehatokia.euskadi.eus



Substantziarik
gabeko
mendekotasunen
prebentzioa:
On- line jokoak eta
kirol apustuak

Helburuak

- **Gizarte-eragileei informazioa eta prestakuntza ematea ausazko jokoekin (batez ere kirol-apustuekin eta on-line jokoekin) eta sare sozialekin lotutako arriskuei buruz.**
- **Joko horiek eta sare sozialek izan ditzaketen arriskuei buruzko informazio objektiboa ematea.**
- **Norberaren burua zaintzeko jokabideak sustatzeko estrategiak ematea.**
- **Parte-hartzaileak sentikortzea mezu prebentiboak sustatzeko betetzen duten eginkizunaren garrantziaz.**



Substantziarik gabeko mendekotasunen prebentzioa: On- line jokoak eta kirol apustuak

Metodologia

Edukiak azaltzea, material interaktibo interesgarrien, talde-dinamiken eta eztabaiden bidez.


Genero-ikuspuntuari arreta jartzea. Izan ere, ikerketa ugari antzeman dute on-line jokoak, kirol-apustuak, aplikazio mugikorak eta abar erabiltzeko modu eta ohitura desberdinak dituztela neskek eta mutilek. Horregatik, ikerketa horiek emandako informazioa kontuan hartu da edukiak landu, helburuak planteatu eta materialak egiterakoan.

Klaseak astean behin emango dira, 4 orduko saioetan, hiru astez jarraian.

Ikastaroaren hartzaileak:

Lehentasuna izango dute gazteekin **lan egiten dutenek edo lankidetzan dihardutenek** (entitateetan, elkarteetan, herri-administrazioetan, enpresetan, ikastetxeetan, boluntariorizan...). Horrez gain, kontuan izango da **izen-emateen hurrenkera**.

- **Gazteen arloko langileak** (Gazteentzako Informazioa, udalak, aldundiak, gazte-elkarteak eta aisialdikoak, eta beste entitate batzuk).
- Gizarte- eta familia-**hezitzaileak**.
- Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako **orientatzaileak**.



Substantziarik gabeko mendekotasunen prebentzioa: On- line jokoak eta kirol apustuak


Programa:

1. Saioa: Adikzioak versus jokabide-adikzioak

- Adikzioa: Zer da? Adikzioaren zikloa.
- Plazeraren ibilbideak.
- Drogarik gabeko adikzioak. Adikzioak sor ditzaketen eguneroko jokabideak.
- Non daude mugak?
- Adikzioak sortzen dituzten jokabideen ezaugarriak.
- Abstinentzia-sindromea.
- Arrisku-faktoreak. Aldez aurretiko joera.
- Gaur egungo kezka: ausazko jokoan, bideo-jokoan eta sare sozialen erabilera.

2. saioa: Joko osasungarritik joko patologikoraino

- Zer da jokia?
- Joko-motak: joko soziala, problematikoa eta patologikoa.
- Jokalari-motak.
- Jokoa kontrolatuzetik neurria galtzerainoko ibilbidea.
- Alarma-seinaleak.
- Gakoak, jokia ez dadin arazo bihur.
- Norbera zaintzeko neurriak, jokia arduraz erabiltzeko.



Substantziarik gabeko mendekotasunen prebentzioa: On- line jokoak eta kirol apustuak

Programa:

3. saioa: Sare sozialak.

- Zer dira sare sozialak?
- Sare sozialei eta nerabeei buruzko datuak.
- Zergatik dira erakargarriak?
- Zer arrisku daukate?
- Kontuan hartu beharreko seinaleak.
- Zer egin behar dut gure zerbitzuko erabiltzailearen bat biktima izanez gero?
- Profesionalak garen aldetik, zer egin dezakegu?
- Gaztea naizen aldetik, nola babestu neure burua?
- Netiketa
- Web lagunak

Irakaslea:

Estibaliz Ansotegi Guruziaga, Psikologiako lizentziaduna Ortzadarren osasun-eta adikzio-arloko prebentzioari buruzko programaren koordinatzailea.


Entitate antolatzailea:

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA

Gazteria Zuzendaritza

Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila

944031645 • gaztebehatokia@euskadi.eus



Substantziarik gabeko mendekotasunen prebentzioa: On- line jokoak eta kirol apustuak